



## OSSIAN SARIA MITXELENARI

Herbesteetan gure hizkuntzarekikoa haintzat hartzea beti zaigu pozgarri, maiz gertatzen denez bertakoen erresetagorri.

Oraingoan Hamburgotik heldu zaigu berria. Alemaniako Stiftung FVS erakundeak Ossian deritzan sari aipagarria, hedakunde gutiko hizkuntzak eta kulturak lagundu nahirik sortua, aurtun Koldo Mitxelenari ematen dio.

Duela sei urte Francesc de Borja Moll mallorkarrari eman zioten katalanerangatik hainbeste arduratu zelako eta pertsonalki oso pozgarria izan zitzaidan aspaldi elkarrekin zenbait harreman izanak ginenez. Harreman haiek oraindik orain ere arduratzen eta kezkatzen gaituen berberak ziren. Francesc de B. Moll-ek zenbait liburu eskaini zitzaizkidan eta bere eritzietarik zenbait berri eman nuen **Euskeraren inguruan** (1969) deritzan saiaiera hartan. Orain ordea, pozgarriago zait gure adiskide hurbil eta gure hizkuntzaren ikerketaz, zabalkundez eta literatur zuzpertzuz urterik zailenatan hainbeste arduratu den Mitxelenari eman diotela jakiteak.

Ossian saria, linguistikaz, edo minorien hizkuntzaren edo kulturaren alde lan egin duten pertsonen edo erakundeen emateko sortua da: sari internazional hori orain arte jaso dutenak honako hauek dira: 1974an Derick Thomson eskoziarrari; 1975ean Robert Lafont okzitaniarri; 1976an Martin O'Diain irlandarrari; 1977an Francesc de Borja Moll mallorkarrari; 1978an J. Brouwer holandesari; 1981ean Christian Matras ingelesari eta 1982an Koldo mitxelena euskaldunari.

Gure artean ez dugu Mitxelenaren nortasuna eta bere euskararen alderako lana aurkeztu beharrik. Salamancan indoeuropear katedraduna izanik eta Sorbonan irakaskintzak eman, Euskal Herriko Unibertsitatara etorri zen. Euskaltzaindiko ikersaileburua dugu. Real Academia Española-ko urgazle edo korrespondiente, Paris-ko Société de Linguistique, Ameriketako Linguistic Society eta Sociedad Española de Lingüística erakundeetan ere parteidea.

Mitxelenaren bibliografía aberatsa da jakintza mailetan sakontasunez eta zabalkundezko lanen hedaduraz. Liburu-rik nagusiaren artean oso ezagunak dira **Fonética Histórica Vasca**, **Sobre el pasado de la lengua vasca**, **Textos arcaicos vascos**, **Historia de la Literatura Vasca**, **Lenguas y protolenguas**, **Apellidos vascos**, eta abar.

Euskaraz ordea, euskal aldizkarietan asko idatzi du, bereziki bere zuzendaritzapean argitaratzen den **Egan-en**. Bertako lanen bilduma bat Patxi Altunak argitaratu zuen **Mitxelenaren Idazlan Hautatuak** izenez, eta horrez gainera, Joan Antonio Letamendiak bildurik **Zenbait Hitzaldi** deritzan liburua; era berean, Mujika Goñik zinema kritikazko lan hautatuak eman zituen.

Mitxelenaren espezialitatea hizkuntzalaritza delarik ere, historia, filosofia, literatura eta abar, sakon ezagutzen ditu. Gure artean jende guti da bere burua jakituriaz hain landua duenik. Baina, bereziki, euskara eta euskal kultura oinarri duela inor saritzekotan, zalantzarik gabe Koldo Mitxelena zen gizonik aipagarriena edo eredugarriena. Hau lasai asko esan dezakegu, inork esatekotan, hainbeste urtetan euskera eta euskal kulturaz zenbait arduratu garenok. Mitxelenak ere, bere adineko gehienek antzera, ikasketak egitean, aukera bera zuen inženiero, ekonomista, arkitekto, legegizon edo beste zerbaitetara ahalegindu, patrikari eta sabelari gehiagorik begiratu, diruzko ondasun hobekak lortzeko; baina, ez, bera buru-belarri, kixote gisa, bihotzaren aginduetara ihili zen. Bihotzaren aginduetara, baina buruz, eta inoiz inorengandik ezer espero gabe, neke guzian aurrean ausart eta herriaren aurrean zintzo. Horregatik, euskararekin pentsatzen emandako sari hori oso ondo emana da. Ondo hautatua iduritzen zaigu. Alemaniako Stiftung FVS erakundeak zuhur jokatu du.

Helduden martxoaren 10-ean Gasteizen jasoko du sari ohoragarria.

Juan SAN MARTIN